

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-3020 errepidearen 31+600 kilometroan Asparreneko-Donemiliagako industrialdearen sarbideak berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko informazioa

Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko maiatzaren 3ko 295/2019 Erabakiaren bidez, “A-3020 errepidearen 31+600 kilometroan Asparreneko-Donemiliagako industrialdearen sarbideak berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Interesaturik dauden erakunde, entitate, korporazio nahiz partikularrek eskuragarri dituzte lurzatiaren planoak eta eragindako titularren zerrenda Donemiliaga (Ordoñana), Asparrena (Araia) Udaletxeetako ediktu taulan eta Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuan, horiek aztertu eta, bidezko izanez gero, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak, ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dituzte, ale bikoitzez, Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorrean, bulego orduetan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza 4 6. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz.)

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 7a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

ALDIZKARI ERREPUBLIKANEN 31.1600 MILIMETROAN ASPARENEN DONIBILLAGO INDUSTRIAL DESEN SARBIDEAK BERANTOLATZEKO ETA HURETZEKO ENKANTZA PROIEKTUA
 PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE REDENBACION Y MEJORA DE LOS ACCESOS AL POLIGONO INDUSTRIAL DE ASPARRENA-SAN MILLAN EN EL P.K. 31.1600 DE LA CARRETERA A-3020

FINKAREN Z/Nº	TITULARAREN IZENA NOMBRE DEL TITULAR	KATASTRONEN DATUAK POLIGONO INDUSTRIALAREN DATUAK		UDALERRIA TERMINO MUNICIPAL	APROBETAMENDIA APROVECHAMIENTO	ERAGINDAKO ONDASUNA BIEN AFECTADO	ERABINDAKO AZALERA M ²		Esp./Espite. 2019/5
		POLEGONO	PARCELA				DEFINITIVA	TEMPORAL	
1/000	ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO S.A.	1	1259	SAN MILLAN / DONIBILLAGA	BARBERETA JARETZA PUBIKOKO ESPASO LIBREA ESPASIO LIBRE (SO) Y DOMINIO PUBILCO	1143			ZORFASUNA
2/000	AYUNTAMIENTO DE SAN MILLAN	1	1257	SAN MILLAN / DONIBILLAGA	BARBERETA JARETZA PUBIKOKO ESPASO LIBREA ESPASIO LIBRE (SO) Y DOMINIO PUBILCO	453			SERVIDUMBRE
3/000	ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO S.A.	1	1256	SAN MILLAN / DONIBILLAGA	BARBERETA JARETZA PUBIKOKO ESPASO LIBREA ESPASIO LIBRE (SO) Y DOMINIO PUBILCO	49			
4/000	LAJO Y RODRIGUEZ S.A.	1	344	SAN MILLAN / DONIBILLAGA	LOBATEGI / LURZORU URBANIZATU INDUSTRIALA JARDIN / URBANA INDUSTRIAL	475			
5/000	LAJO Y RODRIGUEZ S.A.	2	1973	ASPARRENA	LOBATEGI / LURZORU URBANIZATU INDUSTRIALA JARDIN / URBANA INDUSTRIAL	16			